

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresen arteko elkarteak egitea, funtsezkoa da edozein enpresetan. Gure kasuan hainbat alorretako enpresa zein profesionalekin kontaktatu beharko genukeen.

Lehenik eta behin, giltzarrapoen eta euritakoen hornitzaileekin, gure produktua sortzeko oinarrizkoak baitira. Elkarte honen bitartez, negozio-eredua optimizatuko dugu; izan ere, informazioa irabazi dezakegu aterkien eta giltzarrapoen industrian esperientzia sakona duten enpresekin elkarte egingo dugulako eta gainera, kostuak murriztu ditzazkegu, handizka erosteak, prezioak jaitsi egin ohi direlako. Enpresei dagokionez, gure euritakoen hornitzailea, Revanetto izeneko enpresa izango den bitartean, giltzarrapoena Anpro izango da. Azkenengo hau, zenbakizko konbinazio bidez irekiko da, horrela bezeroak ez du giltzarrapoaren giltza gainean izan beharko, guardasola eramaterakoan. Hona hemen hauen inguruko erreferentziak:

- [Aterkiak](#)
- [Giltzarrapoak](#)

Honetaz gain, garraio-enpresa batekin ere kontaktuan jarri beharko gara, kanalen atalean azaldu den bezala, bezeroak, interneten egongo den web-gunearen bitartez egin duen eskaria etxean jaso ahal izateko.

Gainera, gaur egun ezarrita dagoen legediaren inguruan, dudarik izanez gero, profesional batekin edota abokatuen bufete batekin kontaktuan jarri beharko ginateke hauekin ere funtsezko elkarte sortuz.

Azkenik, instalazioen beharra ere izango dugu, behin giltzarrapoak eta aterkiak eskuratzean, hauek bat egin beharko ditugulako. Ondorioz, gure kostuen egiturarekin bat datozen alokairuak dituen enpresa batekin ere elkarte sortu beharko genukeen, bertan lan egingo genuelako. Bai tailer bat sortuz, bai tarte baten ofizina batentzako tokia utziz.